

6.a	4. JARDUERA FITXA	<b>FUNTZIO TEKNIKOA SEGURTATZEN DUTEN ELEMENTUAK IDENTIFIKATU</b> <b>Bizikletaren mugimendu transmisioa etxeko lana</b>	
-----	-------------------------	--	---

<b>EZAGUTZAK :</b>	<b>MAILA :</b>	<b>GAITASUNAK :</b>
Funtzionamendu printzipio orokorra	2 («badakit aipatzen»)	- objektu tekniko baten funtzionamendu printzipio orokorra deskribatu.
Funtzio tekniko a - aterabide teknikoak	2 («badakit aipatzen»)	- Funtzio tekniko bat betetzen duten aterabide teknikoak identifikatzen.

Rollerarekin egin duzun bezala, etxean duzun bizikleta aztertuko duzu haren **mugimendu transmisioa** hobeki uler dezazun eta ororen buru, haren funtzionamendua.

Eginbeharrak :


**1- Elementuak identifikatu**

Eskema honen zati ezberdinak zenbakien bidez identifikatuko dituzu izendegiko informazioa baliatuz.

- baliabideak :

x **BIZIKLETA** : izendegia izenburuko fitxa (sailkagailuko 2. iturri-fitxa) ;

x etxean duzun bizikleta.



9	Koadroa	
8	Pinoiaren ardatza	
7	pinoia	
6	Plateraren ardatza	
5	platera	
4	katea	
3	pedalaren ardatza	
2	biela	pedalierra
1	pedala	
Mk	IZENDAPENA	


**Ardatz :**  
Zerbait bere buruari buruz bira arazteko balio duen pieza zilindrikoa. Pedalier-ardatza.



**Pedalier-ardatz bat.**

## 2- Funtzionamendu printzipioa ulertu

Etxeko bizikletaren ibilera behatuz, mugimendu transmisioaren funtzionamendua deskribatzen duten esaldiak 1-etik 5-ra sailka itzazu taulan eta marrazkietan.



Sailkapena	Funtzionamendu printzipioa
	Platerak katea eramaten du
	Pedalierrak biraketa mugimendua sortzen du eta platerari transmititzen dio.
	Kateak pinoia eramaten du bere biraketa ardatzaren inguruan.
	Erabiltzaileak bere indarra pedalierrari pasaratzen dio, pedalen gainean aldizka zapatuz.
	Pinoiak gibekeko errota birarazten du. Errota eragilea da. Bizikleta aitzinatzen da.

Taula bete ondoan, eskemako zati ezberdinak izendatuko dituzu 1. orrialdeko taulako xehetasunak erabiliz.

## 3- Bilduma diaporamaren bidez

Aztertu duzun bizikletaren transmisio mugimenduari buruz ikasi duzun guzia diaporama baten bidez zehaztuko dugu. Hau egin eta, entseatuko zara **aterabide tekniko** hori, *plater-kate-pinoi sistema*, eskema baten bidez azpi honetan marrazten :